



DEIALDIA, OPOSIZIO BIDEZ BETETZEKO IRUÑEKO UDALAREN ETA HAREN ERAKUNDE AUTONOMOEN ZERBITZUKO GIZARTERATZEKO GOI MAILAKO TEKNIKARIAREN 9 PLAZA

IZENDAPEN-PROPOSAMENA.

Iruñeko Udalaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzura aritzeko Gizarteratzeko goi-mailako teknikariaren 9 plaza oposizio bidez betetzeko deialdiaren 9. oinarrian xedatutakoa betez –deialdi hori Tokiko Gobernu Batzarrak onetsi zuen 2025eko irailaren 29an, eta 2025eko 199. Nafarroako Aldizkari Ofizialean, urriaren 6koan, argitaratu zen–, oposizioko kalifikazio-epaimahaiak aurkeztu du proba gainditu duten eta deialdian eskaturiko betekizunak betetzen dituzten izangaien aldeko izendapen-proposamena, deialdian eskaini zen plaza kopuruaren arabera:

A) IGOERA-TXANDA

ABIZENAK ETA IZENA
LANDA PÉREZ, MAIDER
FERNÁNDEZ RIVED, ANIE

B) TXANDA IREKIA

ABIZENAK ETA IZENA
DE CARLOS LATASA, JAVIER
BRICEÑO ROA, ZONIA ESPERANZA
RINCÓN MARTÍNEZ, VIRGINIA
RUBIO BELTRE, YOMARIS
LOPERENA GARCÍA, AINHOA
ROLDÁN CALVO, AIDA
DEL RIO MUÑOZ, SARA

Epaimahaiaren proposamena ikusirik eta deialdiaren 9.2 oinarrian ezarritakoarekin bat,

ERABAKITZEN DA:

1. Proposatutako izangaiei eskatzea oinarri horretan eskatzen den dokumentazioa aurkez dezatela Iruñeko Udalaren erregistro orokorraren bidez, **proposamen hau deialdiaren web-fitxan argitaratu ondoko 10 egun balioduneko epean.**

a) Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia edo izangaiaren nazionalitatea eta nortasuna egiaztatzen dituen agiri baliokidearena.

b) Zinpeko deklarazioa edo deklarazio solemnea, adierazten duena ez dagoela ezgaitua edo gabetua eginkizun publikoetan aritzeko eta ez dela berezia izan administrazio publikoren baten zerbitzutik.



c) Zin edo promesa, adierazten duena Nafarroako Foru Araubidea errespetatuko duela, Konstituzioari eta legeei men eginen diela eta karguari dagozkion eginkizunak zuzen beteko dituela.

e) Abenduaren 11ko 1110/2015 Errege Dekretuak araututako Sexu-delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiri negatiboa.

Oharra: Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzutik dei eginen zaie azterketa medikoa egitera joan daitezen, egiaztatzeko ez dutela lanpostuaren eginkizunak betetzea eragozten dien gaixotasunik edo akats fisiko edo psikikorik.

2.- Erabaki hau www.pamplona.es/eu webgunean argitaratzea, deialdiaren web-fitxan.

Iruñean, 2026ko uztailaren 27an. – Tokiko Gobernu Batzarreko jarduneko idazkaria, Joxe Abaurrea San Juan.